Usurbilgo Udala

Esp.zk.: ID.05/2022-0158

USURBILGO ESKOLETAN HEZKIDETZA ETA HERRIAN BERDINTASUNA ETA TRATU ONA BULTZATZEKO ZERBITZU KONTRATUA

- BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA -
Prozedura irekia eta izapide arrunta

1.- XEDEA

Lehiaketaren helburua, Usurbilgo Udalak duen “Usurbilgo eskoletan hezkidetza eta herrian berdintasuna eta tratu ona bultzatzeko” zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzea, indarrean dagoen araubidearen arabera.

2.- SARRERA

Urteak dira Usurbilgo Udalak ikastetxeen bitartez hezkidetza-programa herrian garatzen duela. 2017an onartutako II. Berdintasun Planean hau jasotzen da: “Aurrera begirako erronka hezkidetza prometan sakontzen jarraitzea, adin-tartea nahiz lanketa ildoak zabalduz”. Hori horrela helburu hauek finkatu ziren:

- Hezkuntzaren eremu ezberdinetan berdintasunaren eta hezkidetzaren balioak transmititzea.
- Indarkeria matxistaren inguruan herritarrak sentsibilizatzea, eta norabide horretan Udala eragile aktibo bilakatzea.
- Herritarrak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea, genero-rol eta estereotipoak gainditzen dituzten balio eta eredu berriak sustatuz.

Helburu hauek kontutan izanda, Usurbilgo Udalak beharrezkoa jotzen du Usurbilgo ikastetxeetan ikasle, irakasle eta gurasoei zuzendutako hezkidetza lantzeko programa garatzea, ezinbestekoa delako ikastetxeetan eskaintzen den heziketan, egiten duten jendarteratze prozesuan, ikuspegi hezkidetzailea txertatua izatea, urrats eraginkorrak eman ditzaketelako pertsona aske eta integralak hezi ahal izateko.

Ikastetxeez gain, herrian egindako ibilbideari jarraipena emanez, ezinbestekoa da, hezkidetza, berdintasuna eta tratu onak herritarren artean lantzeko aukera izatea.

3.- ZERBITZU-PROGRAMAREN HELBURUAK

- Usurbilgo ikastetxeetan hezkidetza lantzeko programa garatzea da, tratu ona lantzea, sexismoa ekiditea, eta parekidetasuna sustatzea emakume eta gizonen ezberdintasun egoerei aurre hartuz.
- Usurbilgo herrian dauden herritar eta eragileekin tratu ona eta berdintasuna sustatzea, komunitatearekin sare-lana eginez.

4.- ESKU-HARTZEAREN EZAUGARRIAK

Programaren esku-hartzea bi esparrutan garatuko du esleipendunak: ikastetxeak-eskolak eta herria. Esku hartzea ikuspegi feminista batetik garatuko da, eta parekidetasun arloaren oniritzia ezinbestekoa izango da gauzatzeko.

A.- IKASTETXEAK-ESKOLAK HEZKUNTZA KOMUNITATEA: 275 ORDU urtean

- ➔ Ikasle taldeei zuzendutako prestakuntza saioak,
- ➔ Ikasleei zuzendutako aholkularitza zuzena,
- ➔ Irakasleei zuzendutako prestakuntza aholkularitza saioak, zerbitzutakoak.
- ➔ Gurasoei zuzendutako prestakuntza saioak,
- ➔ Ikasleei zuzendutako aholkularitza zuzena, gurasoei zuzendutako prestakuntza saioekin trukatu daiteke.

PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN IKASTETXE EDO ESKOLAK:

- Udarregi ikastola (5. LH, 6.LH, DBH 1, DBH 2 eta 4)
- Lanbide hastapenerako prestakuntza zentroa (sukaldaritza eta ileapaindegia 1. eta 2. Maila)
- Zubietako lanbide eskola,
- Aginagako eskola txikia (LH. 3. zikloa)
- Zubietako eskola txikia (LH. 3. zikloa)

*Atal honetako esku hartzeak ez dira ikasturteko momentu batean soilik egingo, esku-hartzea jarraitua izatea aurreikusten delako. Hau esleipendunak parekidetasun arloa eta ikastetxearekin batera adostu beharko du.

Programan parte hartu nahi duten ikastetxeek Udalari horren berri jakinarazi beharko diote.
Ikasturte batetik bestera talde edo eskola kopurua aldatuko balitz Usurbilgo parekidetasun arloak erabakiko du esleipendunarekin batera nora moldatu edo bideratu ordu horiek.

Udalak esleipendunari zerbitzuaren baitan emandako orduak soilik ordainduko dizkio. Ikastetxera doazenean eskolako ordezkariak esleipendunari bertaratze agiria sinatu beharko dio.

Ikasleei zuzendutako esku-hartzeetan bi bideratzaile (neska eta mutila) arituko dira. Beste esku hartzeetan edo koordinazio bileretan bakarra arituko da, beste irizpide berezirik (egoera dela medio) eskatzen ez den bitartean.

B.- HERRIA: 25 ordu

Herrian, Udalak zein beste hainbat eragilek berdintasun-arloan egiten duten lanarekin uztartuko denez, herri eragileekin sare lana bultzatzeko hainbat ekintza burutu beharko dira.

Ikastetxeekin, eskolekin egindako lana Usurbilen hezkuntzan, aisialdian (adib. Gaztelekuan...) eta herriko eragileekin (adib. Elkarteetan...) egiten denarekin osatuko da. Eremu hauetan, besteak beste, gazteria, hirugarren adina, kulturartekotasuna, aisialdia, emakume talde eta talde feminista edo/eta Udaleko parekidetasun saila. Etorkizunean emakumeen etxea.

C.- KOORDINAZIOA: 100 ordu

Esleipendunak Udalarekin edo hezkuntza baliabide edo herriko eragileekin aurreikusi diren koordinaziorako 100 izango dira.

*A-Ataleko esku hartzeak hezkuntza baliabideetan egingo dira; B atalekoak, berriz, Udaleko parekidetasun arloak esleipendunarekin esku-hartze bakoitzerako finkatutako guneetan. C atalekoak aipatutako bi eremuetan egingo dira.

5.- GAITEGIA

Esleipendunak ikasturte bakoitzaren hasieran (irailean zehar). Udal Parekidetasun Sailari aurkeztuko dio programaren baitan landuko diren gaitegiak.

A- Ikasleei zuzendutako formakuntzari dagokionez, esleipendunak hezkidetza lantzeko programaren baitan gutxienez, bi gai hauek jorratu beharko ditu (gai hauen lanketa eraginkortze aldera, neskak eta mutilak bereiziko dira espazio ezberdinetan):

- Neskei autodefentsa feministaren inguruko prestakuntza emango zaie, indarkeria sexistari aurre egiteko tresnak eskainiz.
- Mutilekin maskulinitateak eta indarkeria sexistaren prebentzioa landuko dira.

Gai hauek jorratzerakoan indarkeria sexistari aurre egiteko eta nerabeei egokitutako egun dauden baliabide eta/edo zerbitzuen inguruko informazioa banatuko zaie ikasleei.

B- Irakasleei hezkidetzaren inguruko formakuntza eskainiko zaie, ikastetxean ikuspegi hezkidetzailea eta genero ikuspegia txertatzen joan ahal izateko.

D- Gurasoei eskaintzen zaien formakuntzaren baitan, gaitegiak lotura zuzena izango du ikasle eta irakasleei zuzentzen zaien formakuntzaren baitan landutako gaiekin.

6.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

- Egitasmoa garatzeko behar diren bitarteko pertsonal, tekniko eta azpiegiturazkoak izatea.
- Egitasmoak iraun artean udal parekidetasun teknikariarekin koordinazio bilerak egitea, plegu teknikoetan zehazten da koordinaziorako beharrezkotzat jotzen den ordu kopurua gauzatuz.

Udalak eskatuz gero, baita udal arduradun politikoekin ere.

- Ikastetxeekin ikasturteko egitasmoa adosteaz arduratuko da, baita saioen egunak ordutegiak eta gainontzekoaz ere.
- Ondoren udal berdintasun teknikariari jakinaraziko dio adostutakoa, ikasturteko egitasmoarekin hasi aurretik Udalaren oniritzia izateko helburuarekin.
- Ikasturte bukaeran, uztailean beranduenez, dokumentazio hau aurkeztuko du Udal Parekidetasun Sailean.

a) Ikasturteko memoria. Ikasturtean zehar egindakoaren inguruko informazioa eta hurrengo ikasturtera begira programa hobetzeko proposamenak. Programaren garapenaren baitan indarkeria sexista jasaten ari diren ikasleak eta/edo eragiten duten ikasleak identifikatzen badira, kasuen gaineko informazioa (ikasleari proposatu zaion baliabideen erreferentzia eta kasu horiei aurre egiteko egindako deribazio eta/edo eskuhartzearen inguruko informazioa, beti ere, datu babeserako legea bermatuaz).

b) Ikastetxe bakoitzean egindako saioen inguruko agiriak, ikastetxeko arduradunaren sinadurarekin (agiri hauetan zehaztuko da ikastetxe horretan egindako saio eta ordu kopurua, baita bertan aritutako egunak eta ordu kopuruak ere).

d) Taldeak ikasturte hasieran egitasmoari begira aurreikusitako ebaluazioaren emaitzak.
- Ikasturte hasieran Parekidetasun Sailarekin adostutako proposamenean aldaketaren bat egin nahi izanez gero Parekidetasun Sailari jakinarazi beharko zaio, bertako oniritzia beharko baita.

*Egitasmoa aurrera eramateko behar den material suntsigarria (fotokopiak, tailerretarako materiala...) talde esleipendunak hartuko du bere gain, materiala esleipen prezioaren barruan egongo da.

7.- ESLEIPENDUNAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Aurkezten den proiektuak bi atalei dagozkien hauek jaso beharko ditu:

- Marko teorikoa eta lan egiteko modu edo eredua.
- Esku-hartzerako metodologia.
- Landuko diren gaitegi edo proposamenak eremuz eremu.
- Lan-taldearen antolaketa.
- Erabiliko den material erreferentea, bibliografia, txostenak...
- Jarraipenerako erabiliko den metodologia.
- Proiektuaren sistematizazio edo ebaluazio proposamena.
- Lan taldearen antolaketa esku hartze horietara begira.

8.- LAN EGUTEGIA

Hezkuntzak erabiltzen dituen ikasturteak erabiliko dira lan-programaren garapenerako. Esleipendunak ikasturte hasieran (irailarean zehar) urteko plangintza finkatuko du; bertan, programaren baitako formakuntza, aholkularitza, saioen egutegiak... finkatuko ditu. Horiek Udaleko parekidetasun sailarekin eta eragile edo ikastetxeetako arduradunekin (ahal den neurrian) adostuz. Azkenik, oniritzia parekidetasun arloak eman beharko du.

9.- LANAREN JABETZA

Zerbitzuaren ondorioz sortutako memoria txostenen eta bestelako barne eta/edo kanpo agirien jabetza intelektuala eta ustiapena Udalarenak izango dira. Hauek guztiak ezin dira erabili esleipendunaren eta/edo beste erakunde baten intereserako erabili, esleipenduna izango da hortik sortutako kalte eta eragozpenen erantzule.